

**2022KO URTARRILAREN 26KO KONTROLERAKO
BATZAR NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
CONTROL DE FECHA 26 DE ENERO DE 2022
(TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “COVID-19ak adinekoentzako egoitza-zentroetan izandako eraginaz Arartekoak egindako azterlanaren ondorioak.”.....	4
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	4
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	7
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	11
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Okelatarako abeltzaintzaren ospea gitxiagotzeko adierazpen kaltegarriak.”	13
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	13
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea	15
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	16
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea	17
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Kudeaketa pribatuko adinekoentzako egoitzen kontrol ekonomikoa.”.....	18
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	18
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	21
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea.....	24
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	25
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Elikadura sistema lokalak sustatzeko Aldundiak emandako pausuak eta 2022rako dauzkan egitasmoak.”	26
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	26

- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea	29
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	30
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea	31
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Bizkaia Dorrea.”	33
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	33
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	34
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	35
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Bizkaia Dorrearen salmenta operazioa.”	35
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	36
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	36
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	38
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Eskola-kirola.”	38
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	39
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea	39
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	40
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea	41
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Bizkaia Dorrearen operazio inmobiliarioa.”	41
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	42

- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	42
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	42
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	43
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Egoitza sarearen egoera.”	44
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	44
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	45
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	45
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	46
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Talentua erakarteko politiken emaitzak.”	46
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	47
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	47
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	48
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	49
- Batzarra amaitu da.....	49

2022ko urtarrilaren 26ko batzarra
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 26 de enero
de 2022 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, buenos días, señor Diputado General, diputados y diputadas, apoderados y apoderadas; y a todas las personas que van a seguir esta sesión vía streaming, buenos días, y gracias por acompañarnos hoy también.

Vamos a comenzar con el orden del día, y para ello, señor secretario, el primer punto dice así:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0003101](#))

Autor: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Asunto: Las conclusiones del estudio del Ararteko sobre el impacto del COVID-19 en los centros residenciales para personas mayores.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0003101](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (74A)

Expediente: ([11/B/18/0002935](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0003101SE](#))

Egilea: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Gaia: COVID-19ak adinekoentzako egoitzazentrotan izandako eraginaz Arartekoak egindako azterlanaren ondorioak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0003101SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (74A)

Espedientea: ([11/B/18/0002935](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Fernández Medrano, tiene la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Gracias, señora presidenta, buenos días a todos y todas.

2021eko zemendian, Arartekoak publiko egin eban Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen egoitzetan COVIDaren ondorioz jazotakoari buruzko txosten bat. Txosten horretan, Arartekoak zorrotz aztertu ebazan pandemiaren lehenengo 10 hilebeteak. Adinekoentzako etaparik latzena argitu eban, eta ondorioak atera ebazan batutako datuen bitartez. Ondorio horreek politika publikoak hobetzeko baliabehar dira, eta egoitzen erabiltzaileak gehiago babesteko.

Danok dakigu egoitza horreetan egon dala, eta dagoala, birus honen aurrean ahulen dan jendea. Eragiten deutseen politika publikoak hobetzeko ahalegina egin behar dogu

erakundeok, ez bakarrik eskumenei jagokenez daukagun erantzukizunagaitik, baita hil diranenganako eta biziraun dabenenganako errespetuagaitik be.

Horregaitik, Elkarrekin Bizkaiak itauna egiten deutso Aldundiari, egoitzetan hobetu behar diran eta Arartekoak aitatu dituan bost gairi buruz. Gure ustez, hemen gagozan indar politiko guztien arteko akordioa sortu daiteke bost gai horreen inguruan. Gardentasuna, eredu, prekaridadea, kontingentzia-planak eta etika dira.

Arartekoaren txostenak, lehenik eta behin, aitatzen dau zailtasunak egon zirala pandemia-garaian egoitzetan jazo zanaren ganeko informazioa lortzeko, bai kudeatzaileakazko bai foru-erakundeakazko hartu-emonari jagokonez. Kudeatzaile batzuek, zuzenean, erantzun be ez eben egin, kudeatzaileen % 21ek baino ez deutse erantzun Arartekoaren eskariei. Eta erakundeek modu ez-efizientean eta ez-homogeneoan egin eben egin beharrekoa. Esate baterako, aitatzen da asteroko txostenak Gipuzkoako kasuei jagokenez bakarrik zirala adierazleak, eta aukera emoten ebela metatutako prebalentzia ezagutzeko.

Edozelan be, egoitzei buruzko informazio faltea pandemia baino lehenago be sumetan gendun Bizkaiko ordezkariok, eta, beste alde batetik, senide eta erabiltzaileak behin eta barriro kexatu dira gardentasun falta hori dala ta. Horrek zer jazoten jaken ziurtasunez jakitea eragozten deutse hareen senideei, bai momentu bakotxean, bai eta aurretik be, informazioan oinarrituta erabagi ahal izateko zer egoitzatan itxiko dabezan beharizan hori daukien senideak.

Egoitzetan jazotakoari buruz kalidadeko informazioa eskuratzeko ezintasun hori, orain, zer edo zer gehiago da. Arartekoaren berbetan, egoitzetan jazo zana ebaluetako aurkeztu daben txosten horren mugetako bat da. Ulertzen dabe, eta geuk be ulertzen dogu, administrazioek zuhur jokatzeara, zelanbaiteko konfidentzialtasunari eusteko, baina adierazo dabe informazioa eskuratzeko trabak aztertu behar doguzala; ez zientzialariei ipinitakoak bakarrik, baita herritarrei ipinitakoak be, jeneralean, konfiantza hobetzeko eta demokrazia areagotzeko.

Galdera hau egiten dogu: ze neurri hartu daike Bizkaiko Foru Aldundiak egoitzetan jazoten danari buruzko informazioaren eskuragarritasuna hobetzeko, eta erabiltzaileek hartzen dabezan zerbitzuen kalidadea ebaluetako sistema bat ezarteko? Arartekoaren berbak dira.

Bigarrenik, bizikidetza-unidadeen egoitza-ereduaren gaia dago. Arartekoak dino elementu egokia dirala pandemiaren aurka burukatzeke. Badakizue adinekoei emondako arrotea euren bizi-itxaropenean eta abarretan zentrotearen aldekoak garala Elkarrekin Bizkaian, baina, beti be, kezkatuta gagoz, bizikidetza-unidadeen kontua erretorika hutsa izango ete dan, akabuan.

Hori eragozteko –txostena aztertzen segiduta–, gaiaren alderdi ikugarriei begiratu beharko litzakie arretagaz. Hau da, Arartekoak adierazotakoei: egoitzen ezaugarri arkitektonikoak, egiturazkoak... eta bestelakoak: tamainua, leku-kopurua, janlekuetako plazak, okupazio-tasa eta abar.

Badakigu zein dan Aldundiak eredu hau inplementetan saiatzeko daukan modua, itundutako plazaren prezioa igonda, baina uste dogu 119/2021 Foru Dekretuan, beharbada, buztartu egiten dirala Arartekoak aitaturako alderdi ikugarri eta arkitektonikoak eta pertsonalizatutako arreta- eta bizitza-planari jagokozanak. Bestalde, adituek txostenean egindako oharrei begiratuta, egoitza-eredu honek, zelan edo halan, behargin gehiago behar daukala esaten da.

Bigarrenik, beste galdera hau egiten dogu: ze neurri hartu daike Aldundiak, bermatzeko egoitza-eredu barri horretaranzko trantsizinoak aintzat hartzen dauela txostenean aitaturako alderdi arkitektonikoak, egiturazkoak eta tamainuari jagokozanak?

Eta beharginei buruzkoa garrantzitsua da. Izan be, hirugarren puntuan autortzen da kutsatzeko arriskua handitu egin dala, eta eragina euki dabela lan-arloko erabagi batzuk. Berbarako, egoitza batzuen eta besteen arteko beharginen txandaketea handiegia izatea, eta ABLEak eta lan-boltsa erabiltea. Bitxia bada be, pandemiak behartuta hartu ziran salbuespenezko neurri hareek eragin negatiboa euki dabe pandemiaren bilakabidean.

Horrenbestez, interesgarria da, egoera hau salbuespenezkoa izan arren, abiapuntuko lan-baldintzei arretagaz begiratzea. Ze neurri hartu daike Aldundiak egoitzen arteko mobikortasuna eta Lurralde Historikoko egoitzetako beharginen prekaridatea gitxitzeko?

Laugarren puntua, kontingentzia-planen gaia. Pandemiaren hasierako prebentzino-neurriak oso garrantzitsuak izan ziran. Gaixotasunaren diagnostiko goiztiar egokia, eta abar. Gero etorri da ezustekoa: aztertze, edo Ararteakori erantzuteko orduan, ikusi da zentro askok ez daukiela infekzino-arriskurako prebentzino-planik. Euki ezker, aukera gehiago egongo izango ziran arazoari aurrea hartzeko. Holango protokoloek denpora eta diru apur bat emon ezker, berebiziko inpaktua euki daiekie bizi izan doguna lako ezohiko egoeretan. Galdetu dogu ea ze neurri hartu daikean Aldundiak egoitzen eremuan holango kontingentzia-planak dagozala bermatzeko.

Eta atzenik, amaitzeko, planteau dogun bosgarren puntuan etikaren gaia ipini dogu mahai ganean. Arartekoak antolakuntzako zailtasunak eta zailtasun logistikoak jorratzen ditu bere txostenaren orrialde askotan; bigarrenik, kezka etikoak, edo dilema etikoak, aitutzen ditu bere ondorioetan.

Dakigun lez, etika-batzordeak osasungintzan oso zabaldua dagozan organismo aholku-emoileak dira, baina, antza danez, gizarte-arretaren alorrean ez dagoz horren zabaldua. Arartekoak eskatzen dau, behintzat, Bizkaiko Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeak presentzia handiagoa eukitea, eta eskumen handiagoa eukitea gizarte-laguntzaren errealdadean, eguneroko erabagietarako euskarri teorikoa eta erespideak emonda.

Egia da bizi izan dogunaren neurriko arazo etikoaren aurrean hartutako erabagi bat nabarmendu egiten dala ezohiko egoeretan, pandemian esate baterako, baina egia da, era berean, erabagi hori denporean zehar landu behar dala, momentua ailegetan danean modu egokian egiteko. Arartekoak dino gizarte-ekintzaren alorrean lana dagoala, gai etikoei jagokenez.

Ildo horretan, hau da guk egindako galderea: ze neurri hartu daike Bizkaiko Foru Aldundiak, esku-hartze sozialaren alorrean etika-batzordeak dagozala eta eraginkorrak dirala bermatzeko?

Laburbilduz, Elkarrekin Bizkaiak itauna egiten deutso Aldundiari Arartekoaren txostenaren bost alderdiren ganean, uste dogulako eztabaidea eragin eta hemen gagozan danok onartzeko moduko mozino bat sortu daikiela. Esan dogun lez, sinpleak dira bost alderdiok: gardentasunaren gaia, egoitza-ereduaren gaia (egoitza-unidadeen aplikazinoa, batez be), prekaridatea, kontingentzia-planak, eta etikea. Eztabaida honetatik abiatuta konpromiso bat lortzea da gure asmoa, eta irrikan gagoz, Arartekoarentzat hain garrantzitsuak diran bost alderdi horreei buruz Aldundiak ze eretxi daukan jakiteko begira. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. En el turno de réplica, señor Murillo Corzo, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora presidenta, junteros, junteras, buenos días a todos y todas.

Sí, el señor Fernández Medrano, en nombre del grupo Elkarrekin Podemos, me pregunta hoy acerca de un informe elaborado por el Ararteko. Me pregunta por el informe sobre el impacto que la pandemia de COVID-19 ha tenido en los centros residenciales de Euskadi.

Arartekoaren bulegoak 2021eko zemendian argitaratutako txosten bat da, pandemiak adinekoen egoitzetan eukitako eragina aztertzen dauen ikerketa bat. Aztertzen dau, era berean, kutsatzeko arriskuaren eta personen ezaugarriakaz, establezimenduakaz eta hareen testuinguruagaz zerikusia daukien faktore batzuen artean dagoan loturea, edo ez dagoana.

Euskadi osoko datuakaz egindako txostena, hiru lurralde historikoetan 2020ko martitik 2021eko urtarrilera arte jazotakoaren ganeko datuakaz. Momentu haretan, egoitzetako egoiliarrek txertoaren lehenengo dosia hartu eben, Euskadin txertaketaren lehentasunezko kolektiboa izan ziran eta.

Itaun hau eta galdera espezifikoko batzuk egin deustaz, eta denei erantzungo deustedaz, jakina, baina itxi eidazu, lehenengo, Arartekoak aurkeztutako azterlan honen ondorioetako batzuk aitatzen, balorazino eta itaun ugari, eta Gizarte Ekintzako Batzordeak eta osoko bilkura honetan egindako galdera asko eragin dabezan zenbait gai dirala ta.

Lehenengoa, egoitzetan COVIDari aurre egiteko erakundeek egindako ahalegina dala ta. Azterlanak agirian itxi dau, eta barbarik berba irakurriko dot, “administrazioek denpora ezin motzagoan erantzun bat prestetako egindako esfortzua, eta egoitzetako arduradunen eta beharginen ahalegina erabiltzaileak babesteko, eta ondorio negatiboak ahalik eta gitxien izateko; ganera, ziurbakotasun, bildur eta estresezko testuinguruan beharra egiten”. 158. orrialdea.

Irakurri beharra daukat, hareei errekonozimentua emoteko, baita erakunde guztien arduradunei be, pandemia honek kalterik gehien egin ahal eban lekuetan ahalik eta ondoriorik arinenak eukiteko tematu dira talde horreei guztiei. Fiskaltzak esan eban, eta Arartekoak be halan dino, azterlan honetan. Uste dot badala garaia gai horrengaitik eztabaida eta zalantza gehiagorik ez sortzeko.

Bigarren kontua: Euskadin eta Bizkaian ez da jazo beste eskualde eta herrialde batzuetan jazo ez dan ezer. Hori be Arartekoak esaten dau, eta esaten dau, barbarik berba, “ikus daiteke eragina, Euskadin, beste herrialdeetan egondakoaren antzekoa izan dala”. 161. orrialdea. Eta, ganera, autortzen dau beharbada detekzino-tasea handiagoa izan dala Euskadin, egin dogun proba diagnostikoen kopurua dala ta.

Esan dogu beste batzar batzuetan, beste herrialde batzuetako datuakaz konparatuz. Lehenengoz neuk esan neban, 2020ko bagilaren 17ko batzarrean, Iardia andreaki erantzunez, eta orain Arartekoak esaten dau, aitatu dozun txosten horretan.

Hirugarrena: kutsatzeko arriskuagaz zerikusia daukien faktoreak dirala ta, Arartekoaren txostenak ateraten dauen hirugarren ondorioa da faktore hori txostenean aztertu zala, baina, baita be, 2020aren amaieretan guk aurkeztu genduan Aldundiko teknikarien txostenean. Zehatz esanda, 2020ko zemendiaren 26an; egun haretan aurkeztu gendun Aldundiko

teknikariek egindako txosten hura. Eta, era berean, Aldundiko teknikariek esan eben, baina orain Arartekoak berretsi dau, eta espero dot oraingoan baiezteko balioko dauela, kutsatzeko arriskua egoitzaren ezaugarrien eta kokatuta dagoan eremuaren arabera izan dala, eta ez jaubetzaren titulartasunagaz edo zentroaren kudeaketagaz zerikusia daukien faktoreen arabera.

Tira ba, ona da esatea, errepikatzea eta gogorarazotea, hemen zalantzan ipinten izan da ta. 167. orrialdea, 179. orrialdea, eta laburpen bat baino ez dot ekarri. “Ez da antzeman kutsatzeko arrisku handiagoa edo txikiagoak jaubetzaren titulartasunagaz edo zentroaren kudeaketagaz zerikusia daukanik”.

Uste dot gai honeek aitatzen izan doguzala, eta, batzuetan, ezbaian ipini dirala. Gaur berbabide dogun Arartekoaren txostenak aitatzen dauen ezker, uste dot komeni dala esatea.

Eta laugarrenik, eta dagoaneko ez dot aitatuko Arartekoak bere txostenean ateraten dauen ondorio gehiagorik. Laugarren, heriotza-tasea dala-ta, ondorioztatzen dau egoiliarren ezaugarri pertsonalakaz loturea euki dauela, eta ez hartutako neurriakaz. Barrero be testuaren esaldi bat ekarriko dot ahora: “Ez da ezelango hartu-emonik detektau zentroen titulartasunaren eta kutsatzeko arriskuaren artean, edo heriotza-tasaren artean. Baztertu egiten da zentroen titulartasunak arretaren kalidadean inpaktu garrantzitsua daukanik, halango moldez non heriotza-tasari eragiten deuston”. 186. orrialdea, baina baita be 180, 164...

Ondorio argiak dira, uste dot irmoak be badirala, gitxienez funtsezko lau gai honeen ganean, pandemian egoitzetan jazo danaren ganean. Eta uste dot neuk behintzat ekarri behar nebazala, batzar-egunkarian jazota geratu daitez, bidezkoak izan gaitez profesionalakaz, dagoaneko 18 hilebete baino gehiago dirauen pandemia honetan bertan egon diran arduradunakaz, eta hondino, zoritxarrez, erne eta adi egon behar dabenakaz.

Edozelan be, barrero dinot: fiskaltzak, Aldundiko teknikariek, orain Arartekoak... Pentsetan dot argi geratu dala.

Baina ez gara egon iragana aztertzen bakarrik. Ganera, neurriak hartu doguz egunero, eta etorkizunari begira egon gara, eta Arartekoak egin dituan proposamenak, 2021eko zemendian argitaratutako txosten honetan aitatzen diran gaitako batzuk gu lehenagotik inplementetan genbiltzan.

Eta orain zenbait puntu aitatuko deustudaz, informazioaren eskuragarritasunari buruz: zure taldeak 2022ko foru-aurrekonturi egindako 3390 zenbakidun zuzenketean, Informatikako Foru Planarentzako partideari milioi bi euro kentzea proponiduten da. Egoitzakaz komuniketea ukatzen deuskuzue. Tira, espero dot ezetz. Espero dot, buruagaz ezetz dinozu, espero dot ezetz.

Informazioaren eskuragarritasuna dala ta, 2020ko martxotik, pandemia hasi zanetik, informazio-sistemak ezarri ziran, egoitzek, banan-banan, egunero informazioa bialdu ahal izateko euren egoera epidemiologikoari buruz, baita parametro batzuk be, persona bakotxaren egoera epidemiologikoa eta abar. Egunero bialtzen izan dabe pandemiaren azken faseetara arte, eta orain astean hirutan bialtzen dabe.

Baina egitureari jagokonez, urte hartako udean, 2020an, lizitazio bat ipini genduan martxan, egoitzek, estrukturaliki, Gizarte Ekintza Sailari informazioa bialtzeko erabiliko daben gordailua diseinetako. Lizitazio hori martxan dago, barne-mailako beharra egin da sailean, eta, horrenbestez, inplementazio horreek laster inplementauko dira, eta emoitza, epe ertainean, egoitzakazko informazio-truke estrukturala izango da. Halanda ze, erantzunak momentuan bertan, 2020ko martxoan, eta etorkizunerako erantzunak sortzen hasi.

Bizikidetza-unidadeetan antolatutako egoitza-eredua dala ta. Pozten nau jakiteak kontzeptualki ados gagozala, 2020ko politika orokorreko batzarrean, irailean, hemen 2021eko irailean iragarri genduan zerbaitegaz, egiten gabiltzan aurrerapenak azaldu genduzan, eta egiten gabiltzan inplementazino-ariketea. Uste dot horren ebidentzia ugari dagozala, ez dodaz barrero hemen aitatu. Eta ez da erretorika hutsa, egitateak baizik, Arartekoak berrestea eredu horrek etorkizunean antzeko egoerei hobetu erantzun ahal izatea ekarri daikeala. Egitateak, esaterako, garilaren 12an zuk Euskaldunan parte hartu zendun jardunaldian; garilaren 30ean, ituntzearen bidez; abuztuaren 24an, Gobernu Kontseiluan, 119/2021 Foru Dekretua onetsiz; egoitzei laguntza, eta irailetik abendura arteko bariku guztietan Euskaldunan emon dan prestakuntza; autodiagnostikoa, datorren barikuan be egingo dana, bizikidetza-unidadeak egiteko konpromisoa daukien egoitza guztiena, Euskaliten eskutik, bariku honetan be egongo da Euskaldunan, lantaldeetan.

Uste dot ebidentzia nahikoa dagoala, egin gura dogun eta egiten gabiltzan inplementazino-prozesuari jagokonez.

Mobikortasuna dala ta. Hara, alerta-egoerea aldarrikatu baino lehenagoko garaira jo behar dot: martxoak 7, zapatua, Birjinetxe, lehenengo kasu positiboa Bizkaiko egoitza baten, Birjinetxen, ni buru nazen Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen titulartasunpeko zentro baten.

Egun haretan, ezohiko batzordean, erabagi genduan ordezkapeneterako boltsak egoitzarik egoitza finkatuko ziral. Murriztu genduan, erabagi hori hartuta, batzuetan alde sozialak ezbaian ipini ebana, eta gero hori baretu eta adostu zan, zentro batetik bestera ordezkapenak eginez birusa transmitidu ahal eben profesionalen lekualdaketarik ez egoteko neurri bat izan zan.

Ha izan zan lehenengo neurria, eta beste bat daukagu, egiturazkoa, hobetu daikeana, ez guk, ohiturazko bideen, egoitzen kudeatzaileen eta alde sozialaren bitartez baino. Klausula batek dino egoitzen plantillen % 85ek finkoak izan behar dabela, eta hori ez da esaten itunean; itunak dino Bizkaiko hitzarmen kolektiboa bete daitela. Bizkaiko hitzarmen kolektiboan adostu dabe alde sozialak eta kudeatzaileek.

Laster amaituko dot, eta kontingentzia-planen ganean berba egingo deusut: aurreikusita dagoz, baina ez dakigu zen izango dan hurrengo pandemiaren transmisino-bidea, infekzinoaren kutsatze-bidea, halangorik egongo bada. Beste gaixotasun batzuk dagoz –eta egoitzetan horreetarako protokoloak dagoz–, infekzino kutsakorrak, baina ez diranak airetik transmitiduten. Eta badaukiez protokoloak horreetarako. Protokoloak pentsau geinkez, eta egon badagoz, baina hondino ezin dogu hurrengo pandemiarena asmau, ez dakigu zein izango dan gaixotasunaren transmisino-bidea.

Eta etika-batzordeei buruz, zer esan? Etika Batzordea, zaharrena, Bizkaiko Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea, 2006an sortua, Estadu osoko lehenengoa Bizkaikoa da, eta gaur egungo presidentak, eta aurrekoak, publizidaderik emon ez deusagun kontu baten parte hartu eben: Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako Aholkularitza Kontseilu bat, foru-agindu horreek emoten genduzanean, erabagimenagaz eta erespide etikoakaz emoteko. Bertan sartu genduzan elkargo profesionalak, lau elkargo profesional, Adinekoen Kontseiluaren kontseiluburua, desgaitasunaren sektoreko persona bat, Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordearen presidentea, eta aditu bi, sektoreko aditu bi. Holan hartu doguz erabagiak, Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeagaz be bai, eta harek webgunean argitaratu diran pandemiari buruzko txosten bi egin ditu gitxienez, txertaketari eta osasunari buruzko bat, eta aurreko beste bat, neurri murriztailei buruz.

Uste dot, hiru lurralde historikoetako etika-batzordeetan, eta, seguruenik, Estadu osokoetan...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Murillo, vaya terminando, por favor.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: ... aktiboena izan dala, eta, autortza egitearren, bera be aitatu beharra neukala. Muchas gracias, y perdone, señora presidenta.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. En el turno de réplica, tiene la palabra el señor Fernández Medrano.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as, de nuevo.

Ez dakit idaztean hutsen bat egin ete dodan, edo planteamentu okerren bat. Itau baten gaiak hobetzeko alderdien ganekoa izan behar daudelakoan nago, arabere gehiago kontuan hartzen badogu Arartekoaren txostenak hobetu daitekezan alde batzuk aitatzen dituala.

Ikuskapen-lana, Aldundiaren eta profesional guztien lana, ezin dot nik egin, hobetzeko aukerea helburu daukan itau baten, aintzat hartu beharreko erakunde bat aintzat hartuta.

Bestalde, pozten naz orain lanerako dokumentu komun bat daukagulako, baina ez dakit berau lantzeko borondaterik ete dagoan. Ona da Aldundiak aurretik egin dauen beharra errekonozidutea baina, ze balio emoten deutso Aldundiak Arartekoaren txostenari?

Izan be, hemen emon jatan erantzuna ikusita, gaia amaitutzat emon da. Ondorio guztiak, aitatzen diran puntu hobegarri guztiak, konponduta dagoz dagoaneko. Ze balio emoten deusagu Arartekoari? Hau da, ulertzen da zer esan gura dodan? Nire aurreko berbaldia ulertu daiteke, edo analizau daiteke, eta pentsetan dot nahiko neutroa izan dana, eta nahiko proposatzailea, eta, egia esan, harrigarria begitandu jat hobetzeko tarterik ez ikustea, edo bigarren berbaldirako ixtea.

Punturik puntu: gardentasunaren gaia, egoitzetan jazoten danaren konfidentzialtasuna jagoteak dakarren aukeratu behar horretan, beti kudeatzaileen alde ebazten da. Hori argi dago, eta erabagiak hartu behar dira –eta Arartekoaren berbak erabiliko dodaz–, ikusteko ze oztopo tekniko edo juridiko dagoan erabiltzaileei eta hareen senideei erantzuteko jazoten danari buruz; lehen esan dodan lez, aurretiazko erantzun bat, senideak jolasean nogaz dabiltzan jakiteko. Esan barik doa itaunetik eratorriko dan mozinoan ez dodala planteauko egoitzen *rating*-aren ganean berba egitea, baina tira, beharbada analisi juridiko-tekniko bat egin beharko da datuen konfidentzialtasunari buruzko legeen eta indarreko arauen mugak aztertzeke, gai honetan inplikauta dagozan guztiak ase ahal izateke.

Egoitza-unidadeei jagokenez be, ez da esan hobetzeko tarterik ikusten danik. Nik uste dot badagoala hori lantzerik, ildoren baten edo bestean. Lehenago esan dot egoitza-unidadeen gaiaren erespide materialak eta immaterialak dekretu berean nahastuta dagozala, ez dakit bananduta jorratu beharko liratekean.

Edozelan be, bizikidetzta-unidadeen aplikazioaren ohiko segimendua eta kontrola egoitzaren kudeatzaileen esku ixten da. Beste era bateko lana egin daiteke, Arartekoak aitatzen dituan alderdiak berrikusteko lana egin daiteke. Badakit, noski, ratioak ez dagozala gure esku, baina gure esku dago berrikusteko eskatzea, bizi izan doguna kontuan hartuta?

Bestalde, gogoan euki daigun OMEren eta beste organismo batzuen esanetan arriskua dagoala salbuespenezko pandemia-egoera honeek salbuespenezkoak izateari ixteko.

Gogoan euki daigun, era berean, Arartekoak aitatu dauen lan-baldintzen gaia planteetako orduan. Edozelan, uste dot badagoala hobetzerik, arlo bietan.

Hori bai, salbuespenezkotasunagaz ezelango zerikusirik ez daukana kontingentzia-planen gaia da. Uste dot horretan ez dogula alkar ulertu. Infekzinoen kutsatzeari buruzko kontingentzia-lanak behar dira, mueta bat baino gehiagokoak, eta erantzun daben kudeatzaileen % 21etik, ia inork ez eukala dirudi.

Ea, hori lege-kontua da, hori eskatu beharra dago. Orduan, hemen, zein da hutsa? Ikuskaritzaren hutsegitea da, ez deutse-ta eskatu, eskatu behar zanean, eta honek zentroen titulartasunari buruz berba egitera naroa; izan be, zeuk ekarri dozu gaia, ez nik, nik ozta-ozta aitatu dot. Egoitzen % 21ek erantzun deutso Arartekoari, zer jazoten da beste % 80an? Bai, hor dago.

Edozelan, uste dot badagoala hobetzerik kontingentzia-planen alorrean be.

Eta gizartean esku hartzeko etika-batzordeen gaiari jagokonez, ez nator hona haren lana ezbaian jarten, Arartekoak esandako gauza bat aitutzen baino. Izan be, presentzia handiagoaren faltea sumetan dau, eta ahalmen betearazle –edo zelanbaitekoa– handiagoa, zentroen eguneroko jardunean ebaleku etiko bat eukiteko, erabagi gatzak oinarritzeko.

Bigarren berbaldian, mesedez, esaidazu akordiorako edo hobekuntzarako aukerarik dagoan gai honeetako baten. Batzarraren ostean berba egin daikegu, baina uste dot kakoa dala ze balio emoten deusagun txosten honi; izan be, ni pozten naz dokumentu komun bat eukiteagaitik, horretan oinarrituta erabagi komunak hartu ahal izateko, eta uste dot bost elementu horreetatik, baten bat, gitxienez, proposamen onargarri baten abiapuntua izan daitekeana. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Fernández Medrano. En el turno de réplica, señor Murillo Corzo, representante de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta.

Bai, gai batzuk aitatu gura izan dodaz, eta esan dot neure eretxiz bidezkoa dala batzar-egunkarian jasota geratzea, errekonozimendu lez, bertan egon ez ziran eta pandemia hau bizi ez eben, edo beste jesarleku baten bizi izan daben beste persona batzuk inoiz irakurten badabe, argi geratu daiten Arartekoak hori be esan ebala. Hori esanda... Eta horregaitik, haren aldeko aldarrikapena egiteagaitik, aitatu egin behar neban. Errekonozimendu bat egiteko berbaldiaren 15 segundo erabilteak ez dau eragozten gero hobetzeko proposamenak egitea.

Argi dago guk balioa emoten deusagula txosten horri. Izan be, 2020ko irailean Arartekoagaz alkartu ginan, komentetako noiz aterako zan txostena, zer genbiltzan gu bertan gehitzen, eta zer ondorio ateraten genbiltzan alkarrizketetatik: kudeatzaileakaz, Aholkularitza Kontseiluko adituakaz, elkargo profesionalakaz, lau elkargo profesionalakaz, eta garai haretan, 2020ko irailean, artean txerto barik eta pandemia gaur ez bezala biziten egoazan adinekoakaz eta desgaitasuna daukien personakaz.

Eta gu, orduan, entzuteaz, diagnostiko bat egiteaz eta Arartekoaren txostenari itxarroteaz ganera, txosten teknikoa egiten genbiltzan, teknikariek, Aldundiko teknikariek, zemendian argitaratu ebena, eta, ordurako, hobetu beharreko kontu eta gai batzuk sumetan genduzan, eguneroko analisiaren ondorioz. Eta esaten deusudanean martxan ipini genduzan ekintza-ildoak izan zirala diseinua egitea, etorkizunerako proposamena egitea, egoitzak 25 personara bitarteko tamainu txikiko bizikidetzak-unidadeetan antolatzea

Gai hori Eusko Jaurlaritzaren 2019ko dekretu baten egoan, eta guk bultzatu egin gendun, kontratazinorako eta politika publikorako daukaguzan tresnen bitartez, inplementetan joateko eta hareen inplementazioa sustatzeko, baegoazalako jasota, maila arkitektonikoan, Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten-, esan gura deusut jarduera-ildo horrek Arartekoaren txostenari erantzun eutsola, eta erantzun egin eutsola, era berean, egunero ikusten genduanari. Aditu horreek, Etika Batzordeko presidenteak, aurreko presidenteak beste aditu batzuk, eta elkargo profesionalek, egunero esaten euskuen zer hobetu ahal genduan.

Baita infekzioaren prebentzioko eta kontrolako 20 teknikariek be, sano lehenagotik, 2020ko irailtik, Bizkaiko egoitzetan gaixotasunaren agerraldietarako kontingentzia-plana eta sektorizazino eta esku hartzeko plana eskatzen ebiltzanek, hau da, egoitza baten positibo bat egon ezkeru bete beharreko protokoloa. Foru-aginduetan ipinten genduan, foru-aginduetan eskatzen genduan, eta hori eskatzen eben infekzioaren prebentzioko eta kontrolako teknikariek be, pandemia prebenidu eta kontrolako ad hoc hartutako 20 teknikariek, 2020ko garilean NBEk, OMEk, emondako gomendioakaz bat eginda.

Egunero egiten zan analisisa, neurri gehiago ezarteko. Ni han nengoan, eta egiaztau daiket profesionalek eta erakundeen arduradunek horixe egiten ebela egunero: analizau eta ekin, analizau eta ekin.

Ekintza-ildoak, zugaz ados nago, eta autortu deusudaz lan-ildo batzuk. Informazioaren gaia, informazioa batzeko ezarri genduzan sistemak, koiunturalak, beharbada prekarioak, martxoan ministerioek legegintzako errege-dekretuak emon ostekoak, batzen genduan informazioa batzeko. Hasi beharra egoan, datu horreek ez, beste informazio garrantzitsu batzuk, egoitzetatik batzen hasi beharra egoan, modu estruktural eta etenbakoan. Eta hori martxan ipini zan, baina egiteko daukaguzan moldeen arabera, 154 egoitza dira ta: kontratazino publikoa, eta barruan egindako partaidetza-prozesua, funtsezko elementuak zeintzuk diran eta zer batu behar dan ikusteko. Eta gero, inplementazioa, tresna horreek egiteko behar dogun Foru Plan Informatikoaren bidez. Eta egoitzen % 54k erantzun dau. Gai batzuei buruz, Fernández Medrano jauna, gai batzuen buruz gitxitxuagok erantzun dabe, eta zuk errazoiaren zati bat baino ez daukazu. Beraz, datu zuzenak esan daiguzan.

Horregaitik da esanguratsua Arartekoaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitzen % 54k erantzun egin duelako, kontu batzuei buruz gitxiago erantzun arren. Beraz, dana esan daigun.

Eta, ildo horretakoak dira proponidu doguzan hobekuntzak. Uste dot bat datozela egiten izan dogunagaz. Nik autortu egiten deusut martxoaren 13an askoz gitxiago nekiala pandemian jokatzeke moduari buruz 2020ko irailean baino, eta arabere gitxiago gaur baino.

Eta momentu horreetan danetan ikasi egin dogu, esan deusudan lez, OMEren txostenen bidez; lehenengo, eta guztiz garrantzitsua, 2020ko garilekoa. Eta gero, adituengandik batutako informazioagaz egindako kontrastearen bidez; Arartekoaren honek be balioko dau egoera horreetan, eta egoera arruntetan be, arreteak hobetzeko adinekoentzako Bizkaiko egoitzetan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, sr. Murillo Corzo. Punto segundo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
[\(R.E.11/E/2022/0000020\)](#)

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: Las perjudiciales declaraciones para desprestigiar nuestro sector ganadero cárnico.

Documento Principal:
[\(R.E.11/E/2022/0000020\)](#)

Expediente: [\(11/B/18/0003058\)](#)

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
[\(11/E/2022/0000020SE\)](#)

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: Okelatarako abeltzaintzaren ospea gitxia-gotzeko adierazpen kaltegarriak

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0000020SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/18/0003058\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Andrade Aurrecoechea, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Gracias, señora presidenta. Egun on guztioi.

Abenduaren 26an, oraintxe dala hilebete, Garzón ministroak, hedabide britainiar baten, adierazo eban Espainiak kalidade txarreko okelea esportetan dauela, tratu txarrak jasaten dabezan animalien okelea.

Ez da ministro horrek gure herrialdeko elikadura-industriarik garrantzitsuenetako bati eraso egin deutson lehenengo biderra; ospea kendu deutso azken urteotan ingurumen-jasangarritasunaren, animalien ondoizatearen eta elikagaien kalidadearen estandar barriei egokitzen dabilen sektore bati.

Lehenago be, joan dan garilean, ministro horrek berak okela merkearen kontra berba egin eban, sabelak betetan ditualako modu arin, betegarri eta ekonomikoan, esan eban lez. Gobernuko presidenteak berak agertu behar izan eban, esandakoa guzurtetako.

Halan be, eta gure abeltzainen ahaleginari esker, gaur egun Espainia munduko erreferenteetako bat da kalidadeko okelea ekoizteari jagokonez, eta 9.000 milioi euroko balioa esportetan dogu 130 herrialdetara baino gehiagotara. Gobernuko ministro batek ezin ditu halango ausardiagaz egin hain adierazpen ardurabakoak, eta hainbesteko ezjakintasuna agertuz.

Ardurabakoak, ganera, arriskuan ipinten ditualako milioi bi lanpostu baino gehiago, eta Espainiako laugarren industria-sektorea, landa-eremuko ekonomian eta despopulatzearen kontrako burrukean funtsezkoa.

Ez daukat zalantzarik, gure jasangarritasun-diputaduak, edo Aldundi honetako beste diputaduren batek, holango zeozer esango baleu gure okelari buruz, kargutik kanpo egongo litzatekeala; behintzat, geure Aldundi Nagusia entzungo genukean, harek esandakoa guzurtatzen.

Hilebete igaro da, esan dodan lez, eta gure Aldundiak ez ditu hondino bere abeltzainak defendidu.

Egia da Bizkaian, itxuraz, ez dagoala okela-ustiategi handirik. Hain zuzen be, Eusko Jaurlaritzak emondako datuen arabera, 2019an okelaren industriari lotutako EJSNa eukien 47 enpresa egoazan Bizkaian, eta 343 persona ebiltzan horreetan beharrea.

Sektore horren makromagnitudea, Bizkaian, abeltzaintzaren azken ekoizpena da, 60 milioi euroan balorau daitekeana, 2020ko datuak, eta hori nekazaritza-arlo osoaren azken ekoizpenaren % 40 da, hau da, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren baturarena.

Era berean, beren-beregi behien ustiapenari begiratu ezker, 2020an 1.917 ustiategi egoazan Bizkaian, 70 esnetarako eta 1.747 okelarako.

Mailarik maila aztertuta, Bizkaian 61 ustiategik eukien okelarako 50 abelburu baino gehiago. Azken urteetan % 30eko beherakadea egon da, eta hori oso kezagarria da.

Horreetatik, gure okelaren % 85 Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan kontsumidu ohi da.

Okela-esportazinoei, edo, zehatzago esateko, EJSNren “okela prozesatzea eta kontserbatzea” jarduerari jagokonez, Eustaten arabera, 2021eko urrira arte 1.815 tona esportau ziran, eta haren balioa, gitxi gorabehera, 2,5 milioi eurokoa izan zan.

Beraz, eta ikusi daikegun lez, gure abeltzaintza familia-mailakoa da batez be, eskala txiki eta ertainekoa. Eta holangoa da, beste barik, luraren orografiak eta jardueraren ezaugarriak horretara behartzen dabelako, orain gitxi irakurri dogun eta sektoreko abeltzainek eurek azaldu daben lez. Ez da azkenaldian, itxuraz, Eusko Jaurlaritzak bere buruari ipini deutsozan dominatxoak ipinteko.

Orain, Bizkaiko abeltzaintza-etxaldeek ganeko eztabaidea hain bizi dagoan honetan, komeni da Euskal Telebistak 2016an eginako erreportaje bat, gai hau eukana: “Euskal abeltzaintzak biziraun daike?”. Erreportaje horretan bertoko abeltzain bati egin alkarrizketea, eta harek inoan euskal abeltzaintza ahul dagoala eta traba asko daukazala; sektore txikerra dala, behargin gitxikoa, gehien-gehienak gizonezkoak, belunaldien arteko errelebo barik; laguntzak adabakia dirala, eta argi egiten dauen guztia ez dala urregorria. Azken baten, oso etorkizun gatxa planteau eban, Euzko Alderdi Jeltzalearen berbakaz kontraesanean, harek esaten dau-ta gure abeltzaintzan dana dala zoragarria.

Izan be, laguntzak funtsezkoak dira sektore horrentzat. Orain dala gitxi, Eusko Jaurlaritzak 12 milioi euroko laguntzak onartu ditu, COVID pandemiak abeltzaintzako produktuen merkaturatzean euki dauen eragina arintzeko.

